# Herritarren Batzarren Gobernantza: rolak eta erantzunkizunak




| Proiektuaren taldea | | |
|---|---|---|
| Rola | Prozesu osoaren buru – Herritarren Batzarra ondo funtzionatu dezan ziurtatu eta inpakturako bide argia zehaztu | |
| Osaera | Herritarren Batzarra sustatzen duen erakunde komanditarioaren ordezkariak eta egitasmoa inplementatutako duten eragileak | Rol nagusiak:<br>• Erakunde komanditariotik proiektu arduraduna<br>• Lan talde teknikoaren koordinatzaile nagusia<br>• Komunikazio aditua |
| Konpromisoa | Rolaren arabera, proiektu taldeko kide gehienak oso inplikatuta daude eta zentralak dira Herritarren Batzarra martxan jartzeko | 4 hilabetetik urtebetera bitarteko konpromisoa, hasieratik amaierara (Batzarraren tamainaren eta iraupenaren arabera) |
| Mugarriak | • Herritarren Batzarra diseinatzea (parametroak zehaztea) | Batzarra baino 3-4 hilabete lehenago |
| | • Zozketa zibikoa egitea (aukeraketa irizpideak definitzeko eta gonbidapen gutuna bidaltzeko ardura) | Batzarra baino 2 hilabete lehenago |
| | • Edukien taldea eta Ikuskapen taldea sortu | Batzarra baino 4 hilabete lehenago |
| | • Komunikazio estrategia inplementatu | Batzarran zehar |
| | • Erakunde komanditarioaren erantzuna eta jarraipena bermatu | Herritarren Batzarraren ostean urtebete |

| Talde ikuskatzailea / Aholkulari aditua | | |
|---|---|---|
| Rola | Herritarren Batzarraren independentzia bermatzeko eta ELGAren Jardunbide Egokien Printzipioak betetzen dituela ziurtatzeko aholkularitza-taldea izendatzen da. Ikuskapen-taldeak gainerako taldeen arteko edozein desadostasun gainditzen lagun dezake, eta bitartekari-lana egiten du batzarkideen eta erakunde publikoaren artean, gatazkarik izanez gero | |
| Osaera | Azterketa-iturri independentea izan dadin, eginkizun hori unibertsitate batek, erakunde independiente batek konfiantza sortzen duena eta esperientzia aditua duena, edo herritarren deliberazioan nazioarteko adituak. Talde honetan, batzuetan, alderdi politiko desberdinetako ordezkariak ere sartzen dira, espektro politiko osoko ordezkariak | |
| Konpromisoa | Ez du rol oso aktiboa. Talde honetako kideak 2-3 aldiz elkartzen dira batzar bat prestatzeko eta gauzatzeko, eta, bestela, gainerako taldeei aholkuak emateko disponibilidadea dute | 4 hilabetetik urtebetera bitarteko konpromisoa, hasieratik amaierara (Batzarraren tamainaren eta iraupenaren arabera) |
| Mugarriak | Herritarren Batzarraren diseinua eta kideak zozketa zibiko bidez hautatzeko irizpideen oniritzia ematen du | Batzarra baino 3 hilabete lehenago |
| | Herritarren Batzarraren errazte plangintzaren, informazio kitaren, eta aditu zein arituen zerrendaren oniritzia ematen du | Batzarra baino 1-2 hilabete lehenago |
| | Aholku eta ikuskaritzarako disponibilidadea du | Batzarrean zehar |

| Edukien taldea | | |
|---|---|---|
| Rola | Herritarren Batzarreko kideek deliberazio saioetan jasoko duten oinarrizko informazioaren arduraduna. Funtsezkoa da oinarrizko informazio sendo eta irisgarri bat, ebidentzia eta ezagutza zehatz, garrantzitsu, argi eta eskuragarrien sorta zabal bat biltzen duena, deliberazioa eraginkorra izateko eta Batzarrerako ezarritako helburuari heltzeko. | |
| Osaera | Talde honek 4-8 aditu biltzen ditu Batzarraren politikaren gaian, ikuspegi eta ikuspuntu ezberdinak ordezkatzen dituztenak | • Akademikoak<br>• Aditu independienteak<br>• Gizarte eragileen ordezkariak<br>• Eragile garrantzitsuak<br>• Erakunde komanditarioaren ordezkariak, Batzarrak jorratuko duen edukian adituak direnak |
| Konpromisoak | Ez du rol aktiboa. Talde honetako kideak 3-4 aldiz elkartzen dira Herritarren Batzarra prestatzeko, eta bestela, beharrak sortzen direnean parte hartzen du, edukiarekin eta ebidentziarekin lotutako galderaren bat sortzen bada | 1-3 hilabeteko konpromiso aktiboa (Batzarraren tamainaren eta iraupenaren arabera) |
| Mugarriak | Gai nagusiak, dimentsioak eta dilemak mapatzen ditu. Batzarkdeen deliberaziorako informazio eta ebidentziak landu eta zehaztuko ditu | Batzarra baino 3 hilabete lehenago |
| | Aditu eta eragileen zerrenda sortzea, batzarkideei aurkezteko. | Batzarra baino 2 hilabete lehenago |

| | | |
|---|---|---|
| | Informazio-kitean sartu beharreko informazioa erabakitzea eta berrikustea | Batzarra baino 1-2 hilabete lehenago |

| Antolatzailea | | |
|---|---|---|
| Rola | Erakunde independente bat arduratzen da Batzarra diseinatzeaz, batzarkideak zozketa zibiko bidez aukeratzeaz, Batzarreko deliberazio-saioen logistika antolatzeaz, deliberazioa errazteaz eta Batzarraren azken txostena prestatzeaz | |
| Osaera | Herritarren Batzarrak errazten ezagutza eta esperientzia duten kideak | Gaitasun nagusiak:<br>• Herritarren deliberazioaren ezagutza sakona<br>• Tokiko testuingurua eta hizkuntza ezagutzea<br>• Esperientzia zozketa zibiko bidez herritarren hautaketa egiten<br>• Herritarren Batzarrak errazten esperientzia (edo hausnarketa errazten duten profesionalekin elkarlanean aritzea)<br>• Komunikazio ezagutza |
| Konpromisoak | Herritarren Batzarra gauzatzen inplikazio handia eta zentrala | 4 hilabetetik urtebetera bitarteko konpromisoa, hasieratik amaierara (Batzarraren tamainaren eta iraupenaren arabera) |
| Mugarriak | Herritarren Batzarra diseinatu (ezaugarriak zehaztu) | Batzarra baino 3-4 hilabete lehenago |
| | Zozketa bidezko hautaketa (gonbidapenak bidaltzearen alderdi teknikoaren arduraduna, azken taldea osatzeko) | Batzarra baino 2 hilabete lehenago |
| | Batzarraren logistika antolatzea eta batzarkideei, hizlari gonbidatuei eta eragileei etengabeko laguntza ematea | Batzarra amaitu baino 2 hilabete lehenago eta amaiera arte |
| | Batzarra errazteko plana diseinatzea eta Batzarra erraztea | Batzarra amaitu baino 2 hilabete lehenago eta amaiera arte |
| | Komunikazio-estrategia bat ezartzen laguntzea | Batzarrean zehar |
| | Herritarren Batzarraren prozesuaren laburpen-txostena idaztea | Batzarra egin eta hilabete bat igaro arte |

## Nola egin aipamena dokumentu honi:

DemocracyNext (2023), “The Governance of a Citizens’ Assembly”, Assembling an Assembly Guide, https://assemblyguide.demnext.org/.